

# DROGETEN ITURRI

Ermua eta Mallabiko aldizkaria. 285. zenbakia. 2020ko urtarrila



**Daniel Txopitea,  
arte modernoaren ikonoa**

*Txopitea  
03*



# IRAZABAL

---

## clínica dental



**Ainhoa Zulueta**  
Doktorea

Odontologian Lizentziatua.  
**Euskal Herriko Unibertsitatea.**  
Unibertsitate Adtua Aho Kirurgian,  
Periodontzian, inplantologian.  
**Leongo Unibertsitatea.**  
Diplomatua Aho Kirurgian.  
**Bartzelonako Unibertsitatea.**  
Hortz-Estetikan Diplomaturua.  
**Madrilgo Unibertsitate Konplutentsea.**  
Hortz-Estetikan Diplomaturua.  
**Autran Institutua. Bartzelona.**  
Etengabeko Formakuntza.  
**New York-eko Unibertsitatea.**  
Oklusioan Graduondoa.  
**Anibal Alonso Doktorea.**

Astelehenetik ostiralera:  
**8:00**etatik **22:00**etara  
Zapatuetan:  
**10:00**etatik **14:00**etara

# Irribarreetan adituak

## Etor zaitez gu ezagutzera

**Zure beharretara egokitutako finantziazio-planak**

**JARRAI IEZAGUZU**

**f Facebooken:** Clínica Dental Irazabal **www.clinicairazabal.com**



**IRAZABAL**  
clínica dental

Julian Etxeberria, 12 - 1. esk. - **20600 EIBAR**  
Tel.: 943 20 85 52 - **www.clinicairazabal.com**

**ARGITARATZAILEA:**

Euskal Birusa  
Elkarte Kulturala.

**HELBIDEA:**

Erdikokale zeharbidea 2, 1.  
247 posta-kutxa  
943 17 93 50 / 688 63 28 76  
drogeten@gmail.com  
www.euskalbirusa.eus

**ERREDAKZIO TALDEA:**

Alazne Aiestaran,  
Amalia Arginzoniz,  
Estibalitz González,  
Libe Solozabal  
eta Dorleta Vidal.

**KOORDINAZIOA  
ETA MAKETAZIOA:**

Dorleta Vidal.

**HIZKUNTZ ARDURADUNA:**

Alazne Aiestaran.

**AZALEKO ARGAZKIA:**

Daniel Txopitea, "Espacio  
con gato indolente" (1983).

**LAGUNTZAILEAK:**

Lutxi Alegría, Antonio  
Hernández 'Cuco', Jose Felix  
Igartua, Patxi López, Garazi  
Mugarza, Valentín Mugarza,  
Bernat Ortiz, San Pelayo  
ikastetxea, Ainize Txopitea  
eta Rosario Zelaleta.

**ARGAZKIAK:**

Gorka Agirregomezkorta,  
Pedro Álvarez, Maria  
Rosario Arrizabalaga,  
Maitane Campos, Aitor  
Hernández, Mallabia FT,  
Mohamed Karim, Garazi  
Mugarza, Valentín Mugarza,  
Indalezio Ojanguren,  
Juanma Rodríguez, San  
Pelayo ikastetxea, Ainize  
Txopitea, Dorleta Vidal  
eta Angel Zelaleta.

**PUBLIZITATEA:**

943 17 93 50 / 688 63 28 76  
drogeten@gmail.com

**INPRIMATEGIA:**

Gertu Koop. (Oñati).

**BANAKETA:**

Piedi Eizagirre,  
Ibon Txurruka  
eta Olatz Vidal.

**TIRADA:**

2.425 ale.

**ISSN:**

1133-973X.

**LEGE GORDAILUA:**

SS-213/1994.

*Drogeteniturrrik ez du  
bere gain hartzen  
aldizkarian adierazitako  
iritzien erantzukizunik.*

# Bertoko kantuak

*Herritarron ahotik*

Santa Ageda kopla

## Neska eder on

Neska eder on bat dago  
bazter hortatik begira,  
neugaz etorri biharko dala  
aitak prestatzen badira.

Mutil zuzena naizela  
egiya da hau berbera,  
hementxe nago zeuri begira  
noiz urtengozun atera.



(Entzuteko: [www.alboka.es](http://www.alboka.es))

# Hilabete honetan...

GURETIK MUNDURA .....4 Pedro Álvarez (Alemania)	BOTEPRONTOAN.....16 Gorka Elgea
ELKARRIZKETA .....5-7 Idoia Goikoetxea	KIROLZALE.....17 Gorka Agirregomezkorta
MALLABIAN ZER? .....8-10 Trabaku Goikoa eta Bastida tabernak	IRITZIA .....18 Hipertentsioa
ERREPORTAJEA .....12-13 Daniel Txopitea	ZORION-AGURRAK .....19 Saldu, erosi edo agurtu
MOTZEAN .....14 Markos Gimenoaren erakusketa	ANTZINAKOAK.....20 Ermuko eta Mallabiko argazkiak
ESKOLEN TXOKOA .....15 San Pelayo ikastetxeko berriak	SAREAN GALDEZKA .....21 Trabaku Goikoak eta Bastidak itxteak, eragina izango du herrian?
	OTSAILEKO AGENDA ...22

**Ondorengo erakundeek diruz lagundutako aldizkaria:**



AYUNTAMIENTO DE LA VILLA DE ERMUA  
ERMUA HIRIKO UDALA



MALLABIKO UDALA

**Bizkaia**  
foru aldundia  
diputación foral



**EUSKO JAURLARITZA  
GOBIERNO VASCO**

KULTURA ETA HIZKUNTZA  
POLITIKA SAILA

DEPARTAMENTO DE CULTURA  
Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA

# Pedro Álvarez



**La hiru hamarkada daramatza ermuar honek Ratisbonan, Alemanian, 1992tik. Hemen bezala, Danubio ondoan ere, kulturen eragiten jarraitzen du.**

**- Zergatik erabaki zenuen Alemaniara joatea?**

Alde batetik, urte batzuk neramatzen Ermuan lanean eta Frantziako Unibertsitate batean urrutiko ikasketak egiten (filologia erromani-koa eta Europako Kultura Ikasketak masterra); bestalde, nire neska-laguna alemaniarra zen. Nire benetako lanbidean jarduteko ordua iritsi zitzaidan, eta kulturalki oso aktibo egon arren, joan behar izan nuen. Kontakizunak idazten nituen; Lo del perro, Pecata mundi eta La mosca del pantano musika-taldeetan konposatzen eta jotzen nuen; eta herriko antzerki taldearekin kolaboratu ere.

**- Erabaki erraza izan zen?**

Ez zen hain erraza izan. Nire familiarekiko lotura

handia sentitzen dut, eta Lo del perroekin topera genbiltzan. Baina, lehenago edo beranduago erabakitzea tokatzen da. Harremana neukan jende ia gehienari pasatu zitzaion bezala, jakin-min kultural eta lanbide oso zailak genituen Ermuan garatzeko.

**- Ratisbona espero zenuen bezalakoa da?**

Ez diet kasurik egiten arreitzi eta topikoei, horregatik erraza egin zitzaidan integratzea, hizkuntza ikas- tea eta bizitza lasaigoaz gozatzea, eroso sentiarazten nauen jendeaz inguruta. Negua eta janaria izan ziren hein batean erronka niretzako, baina beste ohitura eta bizitza-estilo batzuek disfrutatzeke aberasgarriak izan ziren.



Pedroren atzean Danubio ibaia eta Ratisbonako alde zaharra.

**- Ondo moldatzen zara bertako hizkuntzarekin?**

Imajinatu! Alemana jakin gabe iritsi nintzen eta orain irakasle eta kultura-kudeatzailea naiz Ratisbonako Unibertsitateko Hispaniar Ikasketen Zentroan! Gainera, Ikaseta eta Kultura-kudeaketa ikastaroak ematen ditut, aleman-gaztelania itzulpen klaseak emateaz gain. Zailena bavariarra izan zen, baina orain menderatzen dut.

**- Zerbait botatzen duzu faltan?**

Jakina: lagunak eta familia, gure gastronomia apur bat, eta itsasoaren, hegohaizearen eta sagardoaren nahaste deskribaezin hori.

**- Nolakoa da zure egun arrunt bat?**

Nire bikotekidearekin eta gure bi alabekin bizi naiz. Unibertsitatean egiten dut lan, hala nola duela hamahiru urte fundatu nuen Espainiar Zine eta Kultura Festibalean, ikasleekin batera antolatzen dudana. Lehen edizioa Euskadiri dedikatuko genion, eta gure gonbidatuak izan ziren Telmo Esnal, Asier Altuna eta Txema Blasco, besteak beste.

**- Ermura bizitzera bueltatuko zarela uste duzu?**

Euskadira sarritan bidaiatzen dudan arren ez dut uste bertara bizitzera joango naizenik. Baina batek daki!

Libe Solozabal

**SAN ANTONIO**

**OKINDEGIA  
GOZOTEGIA**

Izelaia, 40 Tel. 17 00 63

**AIZ**

**AIZ**

**Garraioak, S.L.**

☎ 636 95 83 39 (JULEN)

**AMAIA  
HARATEGIA**

**Bertoko Okelak**

Probaleku 5  
Tfnoa. 943 17 05 84  
**Ermua**

**IKASTOLA**

1968tik Ermua euskalduntzen



Idoia Goikoetxea adin txikikoen zentroetatik irtendako bi gazterekin. Arg.: Mohamed Karim.

Idoia Goikoetxea, Ermua Harrerako kidea:

## “Migratzailea oztopo-lasterketa batean bizi da”

Urtebete igaro da Ermua Harrera taldeak lanari ekin zionetik. 2018ko udan Bilbora heltzen ziren migratzaileei harrera egiteko sortu zen, baina kalteberatasun egoeran daudenei harrera egiteaz gain, pertsona hauen gizarte eta lan integrazioa bultzatzen dute. Adin txikikoen zentroetatik kaleratuak diren gazteek ere badute lekua proiektu honetan. Pertsona hauek modu duinean bizi ahal izateak prezio bat du: 210€ hilero pertsona bakoitzeko, eta gastu horiei aurre egiteko Harrerak ez du diru-laguntza publikorik jasotzen.

- Zer gertatu zen duela bi urda, 2018ko abuztuaren?

Hegoaldeko mugatik migratzaileak heltzen hasi ziren Bilbora, egunero, eten-gabe. Instituzioak eta Gurutze Gorria bezalako GKE-ak lanez gainezka zeuden eta Bilboko hainbat herritarrek harrera bat inprobisatu zuten, pertsona asko kalean eta kalteberatasun egoeran zeudela ikusita. Harrera hori urda guztian eskaini zen.

- Eta urda bukatutakoan, zer gertatu zen?

Migratzaile horietako batzuk bere bidea jarraitu zuten iparralderantz; beste batzuk gure artean gertzea erabaki zuten, batez ere ez zutelako senide edo lagunik iparraldeko herrialde horietan. Orduan, harrera egin zuen herritar-plataformak deialdia zabaldu zuen Bizkaia osora, laguntzeko proposamenarekin.

- Eta baietza eman zenuen...

Ermuko Kooperazio eta Nazioarteko Elkartasun Kontseilua osatzen dugun taldeetako batzuk hausnarke-ta eta eztabaida prozesua burutu genuen, eta herriko beste pertsona batzuekin bildu ginen, gure kolektiborekin ekarpena zein izan zitekeen aztertzeko. Eta aurrera egitea erabaki genuen.

- Nortzuk osatzen duzue Ermua Harrera?

Hainbat kolektibotako ki-deak gara (Komite Internazionalistak, Hagunia, Cáritas, Misiones Diocesanas eta Urko Punta), eta horrez gain norbanakoak ere badaude. 20 lagunetik gora gara, eta bakoitzaren inplikazio maila ezberdina da. Dena den, talde irekia da, eta migratzaile eta etxerik gabeko errefuxiatuen gaian interesa duen jende guztiak parte hartu dezake. Bizkai-ko Harrera Sarearekin ere koordinatuta gaude.

- Migratzaile eta errefuxiatuak bereizten dituzue?

Ez. Kalteberatasun egoeran daudenekin egiten dugulan, berdin zaigu guda bate-tik ihes egiten ari diren, diktadura batetik, edo bere herrialdean duten baliabide urritasun eta etorkizun ga-bekotik.

- Zertan datza egiten duzuen harrera?

Guretzat harrera ez da bakarrik etxea, arropak eta janaria eskaintzea; harrera egiten dugunok migratzaile-en bidelagun bihurtzen gara, lagundu egiten diegu gure ingurua ezagutzen eta elkartasuna bezalako balo-reak partekatzen ditugu. Badakigu atzerritarren le-geak ez diela inolako esku-biderik ematen, eta horre-

Cáritaseko Isabelita Orzaiz eta adin txikiko zentroetatik irteneko gazte bat. Arg.: Maria Rosario Arrizabalaga.



gatik edukiz eta bizipenez bete nahi ditugu euren ego-eraren erregularizatzeko igaro behar diren 3 urteak. Haiek integraztea nahi dugu, etxean deprimituta ez gertzea.

- Herreran parte hartzen duten migratzaileek bete-beharrik daukate?

Guretzat berebiziko garrantzia du herreran sartzen diren migratzaileek lanean hasi ahal izateko beharrezkoak diren pausoak emateko konpromisoa hartzea.

- Zenbat lagunekin egin duzue lan urtebete honetan?

Bost pertsonekin: Maroko-bikote eta haien jaioberriarekin, eta Senegal eta Ginea Konakryko beste bi lagunekin. 2018ko azaroan gure taldeko pertsona batek pisu bat utzi zigun Santa Anan, eta leku hura eskaini zitzaion lau pertsona horiei. 2019ko apirilean pisu bat topatu genuen alo-

kairuan Zubiaurren, eta Ginea eta Senegaleko gizonak bertara joan ziren. Maiatzean denek joan behar izan zuten Zubiaurreko pisura, eta duela gutxi Aldapan beste etxe bat topatu dugu alokairuan.

- Eta zein egoeratan daude gaur egun?

Senegal eta Marokokoak Elikagaien Bankuko laguntza jaso dute, hala nola Gizarteratzeko Udal Laguntzak eta Eusko Jaurlaritzako Gizarte-Larrialdietarako Laguntzak. Gineako lagunak, berriz, ez dauka pasaportetik, bere herrialdeko gobernuak ez dituelako pasaportea egiten. Horregatik ezin da erroldatu, eta ondorioz ez dauka inolako eskubiderik. Honek Harrera utzi egin du. Gaur egun 12 lagun ditugu gurekin, eta guztiak daude ikasten (sulkaldaritzan, garbiketara, robotika edota iturgintza, eta guztiak daude Helduen Hezikuntzan, HHEn).

**“Instituzioei dagokie gizarte-bazterketa ekiditea, baina ez dira horretaz arduratzen”**



**Caperos**

Pinxoak · Razioak · Kaxolak · Plater konbinatuak · Ogitartekoak  
Probaleku z/g (Ermua) 699 292 043 · 636 549 154

**OSASUNA · ESTETIKA  
EDERTASUNA**

*Marfil*

*Ile-apaindegi bat  
baino gehiago!!*

Egokitutako burua  
garbitzeko konketa

**943 17 28 09 · Goienkale 12**

- **Zergatik da hain garrantzitsua erroldatuta ego-  
tea?**

Horrek zabaltzen dielako bidea migratzaileei, bestela ez dira existitzen. Erroldatu eta 3 hilera osasun txartela eta Gizarteratzeko Udal Laguntzak eskatu ditzakete (87€). Hiru hilabete geroago Gizarte-Larrialdietarako Laguntzak eskatzeko eskubi-  
dea daukate (140€), baina kopuru hauek ez dira nahikoak oinarritzeko beharrak asetzeko. Azkenik, garrantzitsuena: erroldatu eta hiru urte pasatzen direnean, lan-  
nen hasi daitezke. Gobernuaren Ordezkaritzara eska-  
era bidali behar dute eta, onartzen badiete, lana topa-  
tu behar dute. Lanak urte-  
beteko iraupena izan behar du, eta gutxienez lanbide

arteko gutxieneko soldata jaso behar dute. Nire ustez migratzailea oztopo-laster-  
keta batean bizi da.

- **Horrez gain, adin txiki-  
koen zentroetatik irteten diren atzerritarrekin lanean zabilzate. Zein da gazte hauen egoera?**

Bizkaiko Foru Aldundiko zentroetan dauden gazte hauek kalera botatzen dituzte 18 urte betetzen ditzutenean, eta kaltebare-  
tasun egoeran uzten dituzte. Hiru gazte ditugu Santa Anako etxean: bat gaixorik dago, eta beste biak ikas-  
ten ari dira eta laster Bizkaiko Foru Aldundiko Gizarte Inklusiorako laguntzak jasoko dituzte (350€ inguru hilean). Zentro hauetatik bota, eta kalean 6 hilabete egon eta gero eskatu deza-

## “Bizitza prozesu kolektibo gisa ikusiko bagenu, mundua eraldatuko genuke”

kete laguntza hau. Baina jaso arte, 6 hilabete kalean biziraun behar dute. Gure asmoa da laguntza horiek jasotzerakoan, denen artean pisua alokatzea Bilbon eta ikasten jarraitzea.

- **Zenbateko aurrekontua izan duzue?**

Bost migratzaileei urte-  
betez harrera egiteak 12.600€ kostatu zaigu, 210€ pertsona bakoitzeko hilean. Datorren urtera begira honi eusten saiatuko gara, baina egia da aldi be-  
rean, ez genukeela nahi proiektuarekin jarraitu be-  
har izatea: gizarte-bazter-  
keta ekiditea instituzioen eskumena da. Kontua da haiek ez direla honetaz ar-  
duratzen.

- **Laguntza publikoak jaso dituzue?**

Ez, bakar bat ere ez.

- **Eta zeintzuk izan dira zuen diru-iturriak?**

2018ko azarotik Cáritasek lagundu digu, hala nola boluntarioek; norbanako batzuen emariak jaso ditugu, desagertutako Altermuativa

taldearen ekarpenak eta Santa Agedako diru-bilketa. Eta ekimen propioak mar-  
txan jarri ditugu. Gurekin kolaboratu nahi dutenek Er-  
muko Kooperazio eta Nazio-  
arteko Elkartasun Kontsei-  
luaren kontu korrontean egin dezakete dohaina (ES76 3035 0048 6704 8007 4304)

- **Herritar arruntek zer dakite proiektu honetaz?**

Uste dut jendeak ez due-  
la ezagutzen. Oso jende gutxi-  
renganaino heltzen gara. Alde batetik gu ez gare-  
lako komunikatzeko gai, eta bes-  
tetik jendeak ez daukalako inter-  
es handirik. Horrelako konpromisoak hartzeko be-  
netako zailtasuna daukagu, gure buruari begira bizitze-  
ko programatu gaituztela-  
ko. Bizitza prozesu kolekti-  
bo gisa ikusiko bagenu, mundua eraldatu ahal izan-  
go genuke. Partidu politiko-  
ek erantzun beharko luke-  
te, presioa izango zutelako. Baina gizartea beste alde batera begira dago.

Dorleta Vidal



Slide taldeko Josu Cascán Ermua Harreraren aldeko kontzertuan. Arg.: Maitane Campos.

**RIF**  
ITURGINTZA  
KONPONKETAK  
Marques de Valdespina 16  
ERMUA  
605 71 10 81 / 688 71 27 10

ARKITEKTURA ESTUDIOA  
BERRITZE LANAK ZURE ERAIKINEAN  
Ez dakizu nondik hasi?  
GURE LANTALDE TEKNIKOAK  
LAGUNDUKO DIZU  
ZUK ERABAKI  
www.spara.es  
info@spara.es  
Probaleku, 4 Bis, Bajo 48260 Ermua - Bizkaia 943 17 70 57

Udal Euskaltegia  
Teresa Murga Eraikina  
Goienkale z/g 2. solairua  
ERMUA · 943 170 925  
ermukoudaleuskaltegia@gmail.com

Komunitateak  
**San Pelayo**  
Aholkularitza  
juridikoa  
Tel./Fax. 943 17 15 65 / 943 17 25 04  
San Pelayo 6-A (Eroski gainean) 46 P.K. - Ermua

**SAGARDUI**  
poltsak  
Zubiaurre, 29 - Ermua · 943 170305

**FUB**  
Mediku psikiatra  
Psikoterapia psikoanalitikoak  
Psikosomatika  
**Fernando Urizar Barandiaran**  
Ego gain, 18-1A. EIBAR. Tel: 615 71 54 04  
Bailen kalea, 9-1 ezk. BILBO. Tel: 94 416 49 06  
furizar1@yahoo.com

# Trabaku Goikoa eta Bastida, historiaz betetako agurrak

Eraikin historikoak dira biak, 100 urtetik gorakoak, eta haien horma zaharrak milaka istorioren lekuko izan dira. Iazko abenduan bien jarduera eten zen, eta agur horrekin, ez bakarrik mallabitarrek baizik eta inguruko herrietako bizilagunek ere bi erreferente galdu dituzte.

**1** 897. urtean, Mallabiko Zesteruanean bizi ziren Sebastiana Guisasa eta Unamunsaga eta Ambrosio Celayeta Gari-tonandiak, Juan Zalduegiri kaminero etxea zen Arrangiz-gain erosi zioten, eta taberna-ostatu zabaldu zuten bertan. Eltzubin zegoen tabernari kalte egiten ziola, eta Trabakua deitzen hasi ziren". Horrela hasten da Trabaku Goikoa taberna izango zena-ren kontaketa, Rosario Zelaietak berak idatzita.

Elizaldean zeukaten bezala, Trabakun ere ostatu eta taberna zabaldu zuten Rosarioren senideek. Taberna gaur

egun landetxea dagoen lekuan zegoen. 1946an, beste aldean erre egin zen. Osorik berritzu behar izan zuten, eta horrela prestatu: behean taberna, denda, sukalde, jantoki txikia eta bodega; eta guzti horren gainean, dantzarako saloia. 1949. urtean inauguratu zen, eta saloi horretan Juan (Julianen iloba) eta gerora Juan Celayeta aritu ziren soinu-jole gisa gehien bat.

"Sebastiana eta Ambrosioren atzetik, euren seme Julian eta honen emazte Juliana Aramburu Uriarte izan ziren jarraipena eman ziotenak. 1960. urte inguruan hasita, Juliana eta Julianen seme Le-



Trabaku Goikoa, 1968ko irailaren 19a.

on eta honen andra, gure ama Uxarteko Valentina Gallastegi Azula", gogoratu du Rosariok.

Denda ere izan zuten 1970era arte, "eta amama Juliana zen ezkatzeko ate ostean zegoen mahaitik, taberna, denda eta argi-uren kontrola eramaten zuena". Garai batean barberia ere izan zuten bertan, Juanek bultzatuta; 1963an, Rosarioren aitak DKV bat erosi eta taxi zerbitzua eskaintzen zuen; eta horrez gain, matarife lanak egin. Gainera, jostundegia eta estankoa izan zuten 2000 urtera arte.

## Aldaketak

Valentina eta Leonen alaba den Rosarioren eskuetara joan zen orduan taberna, eta honen anaia Patxiren gidaritzara nekazalturismoa 1990an. "Urte horretan, pentsu-almazena kenduta, berritzu barik zegoen aldea berritzu zen eta landetxea ipini zen bertan", azaldu du Rosariok.

Etengabeko aldaketak izan dira Trabakun. 2000. urtean, tejabana gainean egin zuen etxea Rosariok. Eta 2005ean, oilatokia izan zen txabolan, Jonek (Rosario eta Pedro Flores Ircioren seme gazteak) berau hustu, garbitu, aislatu eta musika entseatzeko leku bihurtu zuen. 2007tik aurrera Rosario eta Pedroren seme zaharrena, Oier, eta honen emaztea den Rose Cardoso Sales ere bertan egon dira lanean.

"Bost belaunaldi, etenik gabe, aurrekoak hurrengoarekin uztartuz –idatzi du Rosariok–. Beti ere, guraso, nebarreba, seme-alaba eta kanpoko beharginen laguntzaz".

2019an, Rosariok 65 urte bete zituenean, ibilaldi luze honi amaiera ematea erabaki zuen "...momentuz behintzat". "Pena, poza, kezka, ilusioa... atsedena. Atsedena eta gozamenerako izan dadila", dio Rosariok.



Taberna itxi zeneko argazkia, abenduaren 22an, senide eta lagunekin. Arg.: Angel Zelaieta.

HARATEGIA - URDAITEGIA  
**MIGUEL**  
 2012ko BILBOKO  
 TXORIZO TXAPELJETAN  
 BIZKAIKO  
 TXAPELDUNAK  
 PROBLEMU 3-943170563  
 ERMUA

**ZERMIK**  
 SISTEMA ELEKTRIKOEN GARAPENA  
 DESARROLLO DE SISTEMAS ELECTRONICOS  
 ELECTRONIC SYSTEM DEVELOPMENT

[www.zermik.com](http://www.zermik.com)  
 Usaetxe plaza 6-8, behea  
 Arrasate-Mondragón (Gipuzkoa)  
 Telf: 943 23 10 12

ZERMIK INGENIERIA S.L. mikrokontrolatzaile bidezko diseinu elektronikoak garatzen espezializatua dagoen ingeniari-tza-entresa da. Horrez gain, LabVIEW-ren bitartez sistema industrialen kontrola eta monitorizazioa bideratzeko gaitasuna ere badu.



## 1920. urtean hasi zen Bastida tabernaren ibilbidea...,

**U**rte horretan erosi zuten Fructuoso Bastida eta Paula Garitagoitiak gero Fructuosoneko edo Bastidaneko legez ezagutuko zen taberna eta haren gaineko etxea. Azken honek gela handi-handia zuen, dantzaleku modura prestatu zena. Albo batean barra bat, bezeroei zer edana ateratzeko: ardoa zahagitik eta garagardoa txorrotatik. Eta pianoa gero, baztertxotik makinatxo dantza lotu ikusitakoa. Piano-jotzailea ez bazegoen, soinu-jotzailereren bat etortzen zen. Eladio Intxaurreaga, Malleko "Akello" sarri arduratu zen bere filarmonika doinuez iluntze-gauekoa alaitzen.

Gazteak musika non, hanka bertan, eta joera handia zegoen garai horietan igande arratsaldetan Mallabira etortzeko. Ermua, Eibar, Durango, Berriz, Zaldibar eta

Markinatik ere hurreratzen zen jendea. Andramari jaietan, beteta gero Fructuosonekoa, Zesteranekue eta Errementarixanekue, eta gainera erronomia plazan! Giro aparta!

Ezkontza-bazkariak ere ospatzen ziren bertan, eta eli-


zatik arra bira dagoen tabernan, ondra-bazkariak baita, zelan ez! Garbantzuak, zanarroia, zahagiko ardoa eta patxarra. Apuntera egiten zen dena: noren entierroa, zenbat zahagi eta patxar botila edaten diren... Ordainketok gerora: esku-puntetan dirurik ez eta txahala hildakoa joaten ziren ordaintzera! Gerran konfiskatuta eraman

zuten pianoa, eta haren osetik tabernak gaur egunera arte martxan jarraitu badu ere, goiko dantza eta arrimatzeko kontuok betiko akabo!

Abenduan, agur esateko ordua iritzi zitzaion azken 12 urteotan horren ardura izan duen mallabitarrari, Irune Astarloari.


Estibalitz González  
eta Dorleta Vidal

Bastida taberna ezkerrean eta eskuman Albinoren etxea. 1915. urte inguruan horrela erretratu zuen Indalezio Ojanguren eibartarrak Mallabiko plaza.



# FEREDU

## SOLUTIONS S.L.



- \* HEZETASUNAK
- \* ERREHABILITAZIOA
- \* INPERMEABILIZAZIOAK
- \* MANTENIMENDUAK
- \* IGOGAILUAK
- \* ERREFORMAK
- \* FATXADAK
- \* ITE
- \* TEILATUAK
- \* GARBIKETAK

[www.feredusolutions.com](http://www.feredusolutions.com)  
699 476 112 / 946 423 649 ERMUA

## LORENA BARRÓNEK ETA JONY SERNAK IRABAZI DUTE FRONTENIS TXAPELKETA MISTOA

Urtarrilaren 4an burutu zen Mallabiko lehen frontenis txapelketa mistoa. Hainbat lekutik etorritako 18 bikotek parte hartu zuten (Gaztela eta Leon, Errioxa, Nafarroa eta Euskal Herrikoak), eta 11 ordu iraun zuen. Errioxako Lorena Barrónek eta Burgoseko Jony Sernak irabazi zuten finala (18-22). Bigarrenak izan ziren Nuria Medina (Valladolid) eta David Rodríguez (León), eta Mallabiko Itxaso Praderak eta Andoni Aldapek hirugarren postua lortu zuten.



## TRABAKUAN RADARRA ETA PASABIDEA IPINIKO DITUZTE

Bizkaiko Aldundiak jakitera eman duenez, Trabakuako mendatean gehiegizko abiadura neurtzeko asmoz radarra jarriko da. Bertatik 7.700 ibilgailu dabilta egunero joan-etorrian, eta gehiegizko abiaduragatik gertatzen dira errepide tarte horretako istripu ugariak: 2010etik urtean batezbesteko 60 ezbehar izan dira Berriztik Markinara bitarteko horretan. Bestalde, Udalaren aurreikuspenen arabera, Trabakua gainean oinezkoentzako egingo den pasabidea ekaina aldera zabalduko da. Airetik N-633 errepidea alborik-albo zeharkatuko duen egurrezko egitura bat izango da, erantzuna ematen diona Longa, Gereaa eta Goitako auzotarraren eskaera bati.

## HITZALDIA ANTOLATU DU GAZTE ALAI DANTZA TALDEAK

“Emakumeak euskal dantzan: gezur baten historia” izenburua duen hitzaldia antolatu du Mallabiko Gazte Alai Dantza taldeak. Oier Araolaza kazetari eta dantzaria izango da hizlaria, eta interesa dutenek Kontzejuzarrera jo beharko dute urtarrilaren 31n, 18:30ean.

## MINDFULNESS IKASTAROA HASI DA KONTZEJUZARREAN

Mindfulness edo Arreta Osoa lantzeko ikastaroa jarri du martxan Nahikari neska taldeak. Bi talde daude: astearte-etan 14:30etik 16:00etara (otsailaren 4an eta 11n); ostegunetan 18:30etik 20:00etara (otsailaren 6an eta 13an). Ikastaroa urtarrilean hasi den arren, oraindik eman daiteke izena: 943 17 66 91 telefonoan edo kulturetxea.mallabia@bizkaia.org helbidean.

## IZARO ANDRESEK TXOTX DENBORALDI BERRIARI HASIERA EMAN ZION

Gipuzkoako Txotx denboraldiko lehenengo kupela zabaldu zuen Izaro Andrés kantari mallabitarrak Astigarragan. Ekitaldira gonbidatua izan zen, sagardogileen hitzetan, “artista gazte batek sekula ez duelako lortu hain denbora gutxian Euskal Herriko tenplu musikal guztietan (besteak beste, Kursaal, Victoria Eugenia edota Arriaga antzokiak) sarrerak agortu direla esaten duen kartela eskegitzea”. Sagardoari dagokionez, 2019ko uztak 12 milioi litro ekoiztea ahalbidetu du Euskadin eta Nafarroan, horietatik 8,5 milioi bertako sagarrekin eginikoak.

## MALLABIKO ASTO PROBEN XIII. SARIA BURUTUKO DA OTSAILEAN

Otsailaren 21ean, 22an eta 23an egingo dira pisu neurtuko asto probak Mallabiko frontoian, 21:00etan. Parte hartu nahi dutenek alde zurretik eman beharko dute izena jubiletze tabernan (otsailaren 1ean, larunbata, 19:00etan). Mallabiko Udalak antolatutako txapelketa honetan, Bizkaiko Euskal Joko eta Kirol Federakundearen arautegia jarraituko da, hasi baino ordubete lehenago egingo da pisa-keta, eta ekitaldi bakoitza 30 minutukoa izango da. Izena ematen duen parte-hartzaile kopuruaren arabera, aldaketak egon daitezke ordutegi zein egunetan.

Estibalitz González eta Dorleta Vidal



Probaleku 8, behea

© 943 17 18 50

Iberikoetan  
espezialistak

*Mayte*

VI Centenario 5 · ERMUA  
943 172 412

Drogeteniturrri, 285 zk.

**T** XALAPARTA  
ABERNA

Eta asteburuetan  
pintxoak, afariak  
eta bokatak!

Erdikokale 13  
(Ermua)

- Itsaskabra pudina.
- Txipiroiak.
- Piper beteak: okela edo onddoak.
- Fritoak: urdaiazpikoa edo onddoak.
- Redondo saltsan.
- Sagar tarta.
- Gazta tarta.
- Tortila patata...

**ENKARGYAK**  
**943 030 299**



**PUB YOMY**

Zubiaurre  
kalearen  
bihotzean

# “Irakasleen eta ikasleen arteko feedback-a oso garrantzitsua da”

**Miguel Ledesma 20 urteko ermuarra Ingenieritza Biomedikoa gradua ikasten ari da Mondragon Unibertsitatean, Arrasateko campusean.**

**- Definitu apur bat zure burua, baduzu hobby edo zaletasunik?**

Triatloia egiten dut eta batzuetan entrenatzeko denbora ateratzea zaila da, baina ia egunero tarteren bat lortzen saiatzen naiz. Niretzako ikasketak kirolarekin uztartzea erronka bat da eta honek bi alorretan nire onena ematera behar izaten nau. Gainera unibertsitateko ordutegiak egokiak dira, eta gehienetan ikasteko eta entrenatzeko denbora izaten dut.

**- Zergatik aukeratu zenuen Ingenieritza Biomedikoa gradua? Eta zergatik Mondragon Unibertsitatea?**

Egia esan, azken momentura arte, ez nuen erabaki zer ikasi nahi nuen. Batxiler teknologikoa ikasten ari nintzen baina osasunaren mundua ere gustatzen zitzaidan. Hori dela eta, Mondragon Unibertsitatean Ingenieritza Biomedikoa gradua ikasteko aukera zegoela ikusi nuenean, erabakia hartu nuen. Kirola gustatzen zitzaidanez, pentsatu nuen

Ingeniaritza Biomedikoa ikasita bi gauzak erlazionatu ahal izango nituela.

**- Nola baloratuko zenuke orain arte bizitako esperientzia?**

Hasieran gogorra izan zen, batez ere egokitzapena. Landinamikan sartu ondoren erosoago ikasten da eta behin ohituta zaudenean gauzak hobeto ateratzen doaz.

**- Nola definituko zenuke Mondragon Goi Eskola Politeknikoan jasotzen duzun ikasteko metodologia?**

Taldeka lan egitea oso metodologia ona iruditzen zait, gainera etorkizuneko garrantzia handia du.

**- Unibertsitateetik zer da gehien gustatzen zaizuna? Eta zerbait hobetzeko?**

Irakasleen eta ikasleen arteko feedback-a oso garrantzitsua da niretzako eta pozik nago Arrasateko lan metodologiarekin. Unibertsitateak izan dezakeen hezkuntza-sistemaz gain,

Kirol Zerbitzuko lana bikaina iruditzen zait. Iaz Culleran izan zen unibertsitateko triatloi txapelketara joateko aukera eman zidaten. Gainera, hainbat txapelketa antolatzen dute urtean zehar ikasle guztientzako.

**- Etorkizunari buruz zeintzuk dira zure asmoak?**

Ikasten eta kirola egiten jarraitzea. Nire asmo nagusia bi gauzetarako denbora izatea da. Batez ere, kirolean aurrera egiten jarraitu nahi nuke, ikasketak ateratzen joaten naizen bitartean.



# Daniel Txopitea, arte modernoaren euskal erreferentea

Bere jaiotza eta heriotzaren urteurrenak aitzakia hartuta, orriotan Daniel Txopitea artista plastiko ermuarraren figura eta legatu polifazetikoa ezagutzeko aukera, alaba Ainizeren berbez lagunduta.

**1** 950ko otsailaren 24an Ermuko Kaltxangon jaio zen, 1791an eraiki eta oraindik lau hormak tente dituen izen bereko etxearen lehenengo solairuan. Autoelkarrizketa baten argitzen duen bezala “ezin dut oroitzen josi, ze hiru urte egin aurretik nire familia Eibarrera aldatu zen”. Ainize alabari entzun izan diogun bezala “berak beti gogoratzen eta azpimarratzen zuen Ermuan jaio zela”. Bere testigantza ildotik jarraituz, “aitak oraindik irakurtzen ez zekiela, TBOak erosten zizkieten, marrazki eta biñetekin liluratuta, entretenituz”. Interesak bultzatuta, marrazkiok interpretatze alde-edo, etxekoek gogoan dute Eibarrera joan orduko irakurtzen ikasia zuela; hitzak eta irudiak betirako izango zituen bidaia-lagun.

Jose Mari Txopitea armagin ermuarrak eta Honori Guinda, Casedako nafarrak izandako bi semeetatik zaharrena izan zen Daniel Jose. Eibarren San Agustin Pasealekuan bizi ziren eta etxetik gertu egin zituen oinarritzko ikasketak, San Andres ikaste-

txean. 13 urteko mutikotxoa zela nabarmentzen hasi zen margolari bezala, aire librean pintatuz. Margotzea biziki maite zuen, baina ez egotean gertu bere formazio artistikoa bermatu ahal zuen eskolarik, bere kaxetara hasi zen ikertzen, ikasten, frogatzen... Autodidakta eta bilatzaile geldiezina, bere jarra kuriosoak hainbat arlotan murgiltzera bultzatu zuen: pintura izan bazen bere diziplina nagusia, literatura, argazkilaritza, diseinua eta eskultura ere landu zituen.

## Etengabeko eboluzioan

19 urterekin Mutrikuko pintura lehiaketan saritua izan zen, hurrengo urteetan Zarautzkoan, Debakoan, Donostiako Zinemaldiko horma-irudienean..., kubismo eta espressionismoaren ildotik joanez hasierako bere margolanok. Geroago, Aita Barandiaranen idatzi etnografikoez interesatuta, euskal errito herrikoietan inspiratutako lanen zikloari emango dio hasiera. Giza irudia sartuko du, naturara gerturatuko da, errealismo sozialera egingo du jauzi... Azken etapan, bere hastapenetara begiratuz,

Daniel Txopitea Santa Barbarako bere estudioan.



berriro itzuliko da geometriara, postkubismo bate-rantz bilakaturik bere obra.

Eibarko Pagei kalean tailerra partekatu zuen beste artista batzuekin. “Gorutz” taldea sortu zuen Fernando Beorlegi, Iñaki Larrañaga eta Mariano Plaza artistekin batera; euren obra ezagutzera emateaz gain, artea bultzatzeko eta plazaratzeko helburuarekin erakusketa ugari egin zituzten Euskal Herrian zehar. Bestalde, Debako Arte Eskolaren hastapenetan har-

tuko du parte, Jorge Oteiza lagunarekin ideiak eta proiektuak partekatuz. Hitzaldiak ere emango ditu Agustin Ibarrola, Jose Luis Merino eta Juan San Martinek batera.

1976an Begoña Cendoya eibartarrarekin ezkondu eta Zarautzera bizi izatera joango da bikotea; urte betera Ainize alaba bakarria etorriko da eurenera. Mendizabal baserrian jartzen du Danielek bere pintura estudioa, espazioa Karlos Argiñano lagun sukaldariare-

**Hanigan's**  
Irish Tavern

Gosari, bazkari eta afariak eramateko prestatzen dugu

Astegunetan 7:00etatik zabalik  
Asteburu eta jaiegunetan,  
10:00etatik.

Komentukua z/g · 943030527

**Plan B**

Coffee Lounge      Gin & Beer

Bitsi-denda    Tailor propioa    Erloju-denda

**Senén**  
1978

Diseinuak eta kalitateak  
bereizten gaituzte

San Pelayo zeharbidea 4 ERMUA (48260) BIZKAIA  
www.joyeriasenen.com · joyeriasenen@gmail.com

kin partekatuz. Oparoa, bariatua eta abangoardista izango da bere ibilbide artistikoa eta margotzeaz gain, estetika eta artean ikertzea izango du helmuga, arte-kritikari, arte-hizlari, kultur dinamizatzaile eta idazle izatearenaz konbinatuz. Gainera, lau urtez Donostiako Altxerri Galeriaren kudeaketaz ere arduratuko da.

Bere fazeta literarioak pare bat eleberrri, poema ugari eta hainbat prentsa artikulua laga dizkigu. Erakusketak, osterak, nonahi: lau euskal kapitaletan, Eibar, Gernika, Irun, Elgoibar, Mallorca, Kanariak, Bartzelona, Italia, Ingalaterra, Frantzia, Alemania, Txekoslovakia, Estatu Batuak, Polonian... Ermuan, Txantxiku tabernan 1975ean egin zuen hartan, lanak zintzilikatu zituen herriko beste margolari batzuekin batera, besteak beste, Jose Felix Igartua eta Iñaki Mirandona-rekin.

Aitarenik zer gogoratzen duen galdetuta, alaba Ainezek diosku "17 urte nituen hil zenean eta lagunarte ederra genuen; nire aita izan arren, laguna ere nuen. Elkar akonpainatzen genuen hainbat lekutara; kirola egiten nuenean, esaterako, etorri egiten zen, behatu egiten ninduen eta bere erara entrenatu. Ez

kirol aldetik, ez, baina bai kontseiluak emanez".

#### Bizirik oraindik

Azken boladan, Begoña amaren lekua hartuta, Ainezek dihardu aitaren obra eza-gutzeraren ematen eta dokumental bat sortu du Danielen gaineko katalogo baten lagungarri (Interneten ikusgai). Berarentzat exijentea, baina aldi berean zirrargarria izaten ari da aitari berriz begiratzeko aukera hau, eta hunkitu egiten du ikusteak "ezagutu zutenek freskura handiarekin gogoratzen dutela, sarritan anekdotaren bat tarteko. Hil zela 23 urte datozen honetan, arreta deitzen dit jendearen gogorapen biziak".

Daniel Txopiteak eten bariarik elikatu zituen bere jakingosea eta bide berriak jorratzeko bulkada, adierazpenaren arlo desberdinak garatuz. Pertsona bitalista, lagun lagun, umore fineko eta gizatasun handiko, ezusteko minbizi laster baten ondorioz zendu zen Donostian, 1997ko urtarrilaren 27an, 47 urte bete aurretxoan. Bere errautsak lagun eta familia artean Kalamua mendian zabaldu ziren, Txopi-ren gurariari men eginez. Urtebetetera, Jorge Oteizak bere ohorez eginiko "Txopitea eta Pakea" eskultura jarri zen Eibarren; ordu-



"Puerto de Motriko". Lan geometriko honekin, 1969an hiribildu horretako I Margoketa Lehiaketan hirugarren saria eskuratu zuen.

tik eibartar bikainak omentzeko sari bihurtuta, lanaren erreplika bat ematen zaie irabazleei.

Txopitearen sinadura daramate ehundik gorako artelane eta ikusgai daude, besteak beste, Bilboko Arte Ederren Museoan eta Gasteizko Artiumen, Connecticuteko Hartford Fines Art Museoan eta baita Mallorca, Kanariak eta Bartzelonako zentro artistikoetan, bilduma partikularretan daudenak ahaztu gabe. Kale bistan lan bakarra

du: "Ziklope zelataria" eskultura, Zarautzko Nafarroa kalean. Hiri horrek 2012tik "Txopitea Beka" izeneko diru-saria banatzen du, edozein arte arlotan sormena suspertzeko asmoz.

Otsailaren 24an, arratsaldeko bostetan, 70 urte beteko dira Kaltxangon argia ikusi zuela bere garaiko artista euskaldun esanguratsuenetarikoa kontsideratua dagoena. Ermuarrontzat ez dago ohore handiagorik!

Estibalitz González

**ITURGINTZA - GASA - BEROKUNTZA**  
  
**PALACIOS SM**  
 EMPRESA INSTALATZAILE BAIMENDUA  
 GREMIOEN KUDEAKETA  
 ENERGIA BERRIZTAGARRIAK  
 San Pelayo 26, behea · Ermua (Bizkaia)  
[info@palaciosfontaneria.com](mailto:info@palaciosfontaneria.com) / [www.palaciosfontaneria.com](http://www.palaciosfontaneria.com)  
**660 72 95 03 · 659 75 74 59 · 943 53 92 23**

  
**DG Horacio Decoración** | VI Centenario 10 - Ermua  
 943 03 15 80  
 IAPIZERIA - ALTZARIAK - OSAGARRIAK | [www.dghoraciodecoracion.com](http://www.dghoraciodecoracion.com)

  
**CITROËN**  
**AUTOS AMEDI**  
 Zearreko buelta eraikina 3, L8 pab.  
 Telefonoa 943 17 04 14

**Ferretería**  
**ANBOTO**  
 Burdindegi  
 Orain  
**KOTXKO GILTZEN**  
**KOPIAK** ere  
 egiten ditugu  
  
 943 17 69 76  
 607 33 11 77  
 ZUBIAURRE, 25 ERMUA (BIZKAIA)  
[www.ferreteriaanboto.es](http://www.ferreteriaanboto.es)

**Desiak**  
 PSIKOLOGIA  
 ONGIZATE PERTSONALEKO ZENTROA  
 Nahia Rojo Bustinduy  
 Psikologoa eta Sexologoa  
 Hitzorduak: 688 85 18 95

**ESKOLABARRI IKASTETXEAK D EREDUA ESKAINIKO DU**

Ermuko Eskolabari Ikastetxeak D ereduaren eskainiko du bere hezkuntza proiektua 2020/2021 urtetik aurrera. Hori dela eta, datozen asteotan eskola horretan matriculatu diren umeek euskara hutsean burutuko dituzte ikasketak, 2 urterekin hasi eta Lehen Hezkuntza bukatu bitartean. Bertako irakasle eta langileen ustez, aldaketa hau naturala eta logikoa da, eta orain arte Ermua euskalduntzeko egin izan duten lanaren jarraipena da.

**LILATOIRA JOATEKO AUTOBUSA IPINIKO DA**

Lasterketa herrikoi honen 31. edizioa martxoaren 1ean izango da eta, urtero bezala, Ermuko emakume talde batek bertan parte hartuko du. Berdintasun Sailak autobusa ipiniko du Donostiara joan-etorria egiteko, doan, eta izena emateko epea otsailaren 20ra arte egongo da zabalik (edo dortsalak bukatu arte). Emakumeen Topalekuan burutuko da izen-ematea, eta 11€ ordaindu beharko dira dortsala eskuratzeko.

**III. URTEURRENA OSPATUKO DU BNI ARMAGIN TALDEAK**

BNI Armagin enpresa taldeak urteurrena ospatuko du urtarrilaren 31n Eibarko Armagintzaren Museoa, 13:00etatik 15:00etara. Enpresa eta autonomoek zuzendutako ekitaldia izango da, eta alde aurretik eman beharko da izena 639 257 983 telefonoan.

**ERMUKO HISTORIA MARGOTUZ**

Herriko ohitura, jai eta kirol herrikoiak margotzeko eta irakurtzeko aukera eskaintzen du Udaleko Euskara Sailak berrargitaratu duen lamina-koadernoak. Hogei protagonista batzen dira bertan, eurentatik bi propio osatu berriak bigarren argitalpen honetarako: eskubaloilariak eta xabalina-jaurtitzailak. Estibalitz González ermuarra arduratu da testuez eta Marta Terán eibartarra marrazkiez. Eskola-umeen bitartez banatuko dira eta doan ere eskuratu ahal izango da Euskara Sailera gerturatuta.

**Aitor Hernándezek 7 garaipen lortu ditu azken denboraldian**

2019/2020ko ziklo-kros denboraldia bukatu berri da, eta Aitor Hernández txirrindulari ermuarra pozik dago lortutako emaitzekin. Guztira 7 garaipen, Gabiriako Kopa eta Euskadiko Txirrindularitza Federazioko Challengeko lorpenak. Guztira, 119 lasterketa irabazi ditu ziklo-kroseko elite kategorian.

**Otsailaren 21ean burutuko da aurtengo Hartz Eguna**

1990. urtetik aurrera egiten den bezala, Hartz Eguna ospatuko da Ermuan, Eguen Zuri biharamunean. 18:30ean hasiko da kalejira Santixapeko iturritik (eliza ondotik) eta herriko kaleetan barrena ibiliko da, koplak abesten diren bitartean. Txindurri taldeak inauteri dantzak eskainiko ditu, eta horregatik, kalejiran parte hartuko dutenek Euskal Herriko inauterietako jantziak eramatea eskertuko da. Ekimen hau ondokoek antolatzen dute: Euskal Birusak, Txindurrik, Anaitasuna Ikastolak, Eskolabarrrik, Kaltxango AEK Euskaltegiak eta Udal Euskaltegiak.

**Markos Gimenoaren omenezko erakusketa ikusi daiteke Lobianon**

“404 Not Found Eguna” izenburupean, Markos Gimeno Vesga artista ermuarraren lanak batzen dituen erakusketa ikusteko aukera egongo da otsailaren 2ra arte. “Interneten, webgune bateko orri bat desagertu bada, hutsegite-mezu hau agertzen da pantailan: 404 Not Found. Urtarrilaren 15ean 404 egun bete ziren Markos joan zenetik, eta artean artearen bitartez, kontaezinak diren artelanak aurkitzen ari gara edonon —diote antolatzailak—. Horiek guztiak ikusi, ukitu, entzun, pentsatu, sentitu, partekatu eta batez ere gozatu nahi ditugu”. 18:00etatik 20:00etara dago erakusketa zabalik astelehenetik ostiralera Lobianon, eta 12:21etik arratsaldeko 02:20etara asteburuetan. Urtarrilaren 31n, ostirala, PAM taldeak 20 minutuko akustikoa eskainiko du 19:00etan Lobianon; eta 2an, sorpresa batekin itxiko da erakusketa, 13:31n. “Bildutako materialarekin beste erakusketa batzuk egiteko asmoa dugu” adierazi dute antolatzailak.



**enolimp**  
GARBIKETA ZERBITZUAK

Tel.: 94 659 01 41 - 618 89 29 60  
E-maila: info@enolimp.es  
48620 Ermua (Bizkaia)

Atariak - Bulegoak - Lokal komertzialak - Enpresak  
Obra amaiera eta erreformak  
[www.enolimp.es](http://www.enolimp.es)



**ORBE**  
TOLDOS Y PERSIANAS

- Toldoak
- Ostalaritzarako muntaiak
- Pertsianak
- Instalakuntzak eta konponketak
- Motorizazioa

- Manparak
- Segurtasun pertsianak
- Pertsiana dekoratiboak
- Estoreak
- Eltxo-sareak

Tailerra:  
Zearreko Buelta 2  
943 17 66 34 - 630 01 13 41  
48260 Ermua (Bizkaia)

Erakusketa: Karabixa 1  
48260 Ermua (Bizkaia)  
943 17 98 60  
persianasorbe@gmail.com

## DBHko ikasleak Gernikako Batzar Nagusietara joan ziren

2019ko azaroaren 22an, San Pelayo Ikastetxeko DBHko bigarren mailako gela, beste eskola batzuetako ikasleekin batera, Gernikako Batzar Nagusietara joan ginen, haurren eskubideei buruzko lan bat aurkezteko. Gernikan, ikasleez gain, Batzar Nagusietako lehendakaria, alderdi politiko ezberdinetako batzarkide batzuk eta Unicefeko Euskadiko presidentea zeuden, hitzaldian ere parte hartuz. Gure proposameta izan zen Ermuko Merkatu Plaza berritzea, eta haurren beharrianak asetzera zuen helburu, haurren eskubide guztiak betetzeko asmoz. Proiektu horretan, eskubideak nola bete idatzi genuen eta eraikuntzaren diseinu berria egin. Diseinua horrelakoa izan zen: beheko solairua (ume txikien-



tzat), Erdiko solairua (6-10 urteko haurrentzat) eta azkenengo solairua (11-16 urtekoentzat), stand eta gela ezberdinekin. Horretaz gain, gure kurtsoak bi elehun aukeratu zituen (neska bat eta mutil bat), diskurtso bat egiteko. Bertan, poema bat irakurri genuen, non haurren eskubideei buruz hitz egiten zen, zehatz-mehatz parte-hartze eskubideari buruz.

## San Pelayoko ikasleak Italian



Azaroaren 17tik eta 23ra arte San Pelayoko lehenengo eta bigarren batxilergoko ikasleok Italiara bidaiatu genuen Historia Unibertsaleko oinarriak hobetzeko, eta gure munduarekiko jakintzak zertxobait lantzeko asmotan.

Autobusez abiatu ginen gure irakasleekin, hurrengo eguneko 18:00ak inguru Florentziara heldu ginelarik. Heldu bezain laster hiria ezagutzera irten ginen eta bidaiako lehenengo pizzak jan genituen. A zelako ezberdintasuna!

Hurrengo egunean, gida baten laguntzaz, Ponte Vec-

chio, Duomo eta kale historikoenak ezagutzeko aukera izan genuen. Behin *tourra* bukatuta, Florentziako miradora bisitatzea joan ginen, Erromarantz bidea hartu aurretik, non Vatikanoa, Koliseoa eta inguruko monumentuak ikusi ahal izan genituen.

Eguna pasa eta Fontana di Trevi, Piazza Spagna, Trastevere auzoa, Panteoia eta enbajadatik pasa ginen, gure bidaiari Pisan bukatuz. Bertan Duomoa, dorrea eta baitaotegia ikusi genituen. Hemen amaitu zen gure bidaiari, etxera bueltan.

Atentzioa gehien deitu ziguna izan zen mahai baten esertze hutsagatik ordaindu behar izatea; zer esan Erromako asfaltoari buruz, italiarren gidatzeko erari buruz edota hiri batzuetan pailazoz jantzitako lapurrei buruz! Hala ere, zalantzarik gabe, errepikatuko genuke.

## Rotika lantzen ari dira Haur Hezkuntzan

Haur hezkuntzako 4 urteko ikasleekin LEGO Coding Express izeneko proiektu batekin lan egiten ari gara. Helburua hau da: txikitatik programatzeko gaitasuna garatzea. Oinarrizko trebetasunak landuta, programakuntza kontzeptuak praktikan jartzea errezagoa izango da.

Proiektua tren bat da, eta mundu digitalerako tresna didaktiko bihurtzen da.

Ikaskuntzaren funtsezko balioak handitu ere egiten

dira: programazio goiztiarren logika ikastea, elementu digitalak erabiliz ideak adieraztea, lenguaia eta alfabetatzea ezagutzeko; eta pentsamendu kritikoa, elkarlaguntza eta arazoaren ebazpena garatzea.

Argibideak gogoratzen eta arreta handitzen laguntzen die ere. APP baten bidez ariketa tematiko desberdinak lantzen dira: bidaiak, pertsonaiak, matematikak eta musika.



**CAPRI**  
PIZZERIA  
943 03 33 15

ileapaindegia  
**Silvia**  
peluquería

Asteartetik ostiralera  
9:00-12:00 15:00-19:00  
Larunbata  
8:30-13:00

943 170474

688819336

**Deitate**  
**QUERERE**  
BERRIA BERRUA

# G O R K A E L G E A

- **Zazpi urte bete arte Ermuan bizi zinen. Baduzu orduko oroitzapenik?**

Oroitzapen gutxi ditut, eta txarrak. Bihurria nintzen... orain bezala. Ikastola gogoratzen dut, Olatz Olaizola zen nire andereñoa, gure gela, antzerki bat, Santa Anako skateparka, plazako frontoi zaharra, eta Don Teodoro, gozokiengatik!

- **Nolakoa zen zure egun arrunt bat New Yorken?**

Gogorra. Bertako bizimodu oso ezberdina da, lan egiteko baino ez dira bizi: etxetik lanera eta lanetik etxera, 7:00etatik 19:00etara. Urtean birritan irteten dira lagunekin.

- **AEBetan egon zaren 26 urteetan Ermura bueltatu izan zara?**

Ez. Ama 2011n etorri zen, aita hil zela jakiterakoan. Ni 2014an etorri nintzen, jaietan, eta 3. egunean banekien hemen bizi nahi nuela, hemengoek bizitzaz disfrutatzen dakitelako. 2018ko apiriletik aurrera Ermuan bizi naiz, eta etxean sentitzen naiz, nahiz eta hemengoentzako yankia naizen. New Yorken nengoenean, haientzako ere arrotza nintzen.

- **Joan zinetik herria asko aldatu dela esango zenuke?**

Bai, uste dut orain politagoa dela. Jendeak ezetz dio, baina...

- **Ermuan ala New Yorken gusturago?**

Hemen, zalantza barik! New York leku aproposa da bidaiatzeko, baina ez bizitzeko.



**Ermuan jaio zen duela 35 urte. Pamela Janice ama, eta izen berekoak aita eta anaia: Jesus Mari. Zazpi urterekin New Yorkera bizitzera joan zen, eta duela bi urte gurera bueltatu da, hango bizimoduaz nekatuta. Komunikazioan lizentziatu zen, eta irakaslea zen bertan zein hemen.**

- **Non egiten duzu lan?**

IMHn, Elgoibarren, ingelesko klaseak ematen ikasle eta irakasleei.

- **Zer da lan horretaz gehien eta gutxien gustatzen zaizuna?**

Dena gustatzen zait. Zoriontsu egiten nau hemengo-erri zerbaitetan lagundu ahal izateak, hemen jende guztia dagoelako beti niri laguntzeko prest.

- **Aisialdian?**

Lekeitiora joatea gustatzen zait, paradisua da niretzat.

Kirola asko gustatzen zait, baina ez daukat denbora askorik. Horrez gain, lagunekin egotea: poteoak, mendira joan, bazkariak... Hemen beti dago aitzakia bat bazkaria egin eta lagunekin egoteko, eta asko estimatzen dut.

- **Bidaiatzea maite duzu?**

Bai. AEBak osorik ezagutzen ditut, eta Hego eta Erdialdeko Amerika ere, baina Ermuan nagoenetik bidaiaren batean egongo banintz bezala sentitzen naiz. Ez daukat beste inora joateko beharrik.

- **Musikazalea?**

Bai, Sutagar, Kokein eta trikitixa gustatzen zaizkit, ahal dela, zuzenean. Kotxean Euskadi Gaztea entzuten dut.

- **Irakurtzeko?**

Egunkariak batez ere, eta ingeleseko liburuak e-boo-kean. *On Kixote* irakurri dut ingelesez, esaterako.

- **Jateko?**

Txipiroiak bere tintan eta sushia. Hemen janaria freskoa da, eta kozinatzen da; AEBetan dena erosten da supermerkatuetan, eta gu bizi ginen lekuan ez zegoen fruta-dendarik, esaterako. Asko eta asko izoztutako gauzak dira, elaboratuak...

- **Zerk ateratzen zaitu zure onetik?**

Aparkatzeak lanetik bueltatzen naizenean. Batzuetan ordu erdi ematen dut aparkaleku bila.

- **Erraz haserretzen zara?**

Ez, normalean pozik egoten naiz.

- **Zein albiste irakurri nahiko zenuke?**

Oso zoriontsua izango nintzateke Euskal Herriko errealitatea mundu osoan ezagutuko balitz. Jendeak ikusiko balu nola egiten ditugun gauzak, eta zein ondo bizi garen hemen.

- **Zerbait egin ez izanaren pena duzu?**

Hemendik joan ez izana nahiko nuke, baina orduan agian ez nuke Ermuan bizitzeari horrenbeste estimatuko.


Dorleta Vidal

solozabal  
tabakoak

torrekua 1  
tel./fax: 943 17 07 33



Drogeteniturrri, 285 zk.



optika  
itze

✓ ENTZUMENAREN DOHAINEKO KONTROLAK  
✓ AUDIFONOETAN AZKENENGO TEKNOLOGIA

Probaleku, 7

Tfnoa. 943 17 46 51



Gorka Agirregomezkorta, *kickboxing* K1 borrokalaria:

# “Kolpeek gero eta min gutxiago egiten dizute”

Duela bi urte hasi zen *kickboxing*a praktikatzen, eta iazko azaroan Gipuzkoako txapelketa irabazi zuen ermuar honek, K1 modalitatean junior kategorian. Egungo erronka, *Muay Thai*a.

- Zer dela eta hasi zinen kirol honetan?

Futbola utzi eta gero animatu nintzen. Errugbiak ere erakartzen ninduen, baina *kickboxing*eko entrenatzaile bat ezagutzen nuen aspaldidanik, amak duela 8 bat urte praktikatu zuelako kirol hau, eta lagun batekin probatzera joan nintzen. Oso *explosiboa* delako gustatu zitzaidan.

- Zertan datza?

*Kickboxing*a borroka bat da, boxearen antzekoa, baina ostikadak eman daitezke gorputz osoan (belaunetik behera, hankartean eta atzetik izan ezik). Min handien ematen duten lekuak dira burua, gibel eta koadrizepsa. K1 modalitatean, gainera, belaunak ere erabili daitezke.

- Kirol bortitza da?

Ez, borrokaldietan kiroltasuna da nagusi, eta amaitutakoan lasai asko agurtzen gara. Futbola askoz ere zatarragoa iruditzen zait: elkarri iraintzen diote etengabe, eta afizioak zer esanik ez!

- Eta mingarria?


Bai, eta babesteko modu bakarra gorputza gogortzea da. Tibia gogortzeko, esaterako, makil batekin igurtzen dugu. Batzuk galdetzen didate ea masokista naizen, eta ez naiz masokista, ez: kolpeek gero eta min gutxiago ematen dizute.

- Zeintzuk dira gehien lantzen diren trebetasunak?

Oreka eta erreflexuak. Horrez gain, gogorra izan behar zara fisikoki eta psikologikoki. Arlo honetan presio handia duzu, eta kontrola izateak garaipena eman ahal duzu.

- Zenbat entrenatzen duzu?

Astean birritan entrenatzen nuen, eta borrokaldia gertu zegoenean astean 4 egunetan. Harrezkero erabaki dut gehiago ez kompetitza denboraldi honetan.



- Lortu duzun emaitzarik onena?

Momentuz Gipuzkoako K1 Federazioak antolatutako txapelketan lortutako garaipena, Eskoriatzan iazko azaroan.

- Etorkizunean ere honetan jarraituko duzu?

Otsailean Durangon edo Markinan prestatzen hasiko naiz, *Muay Thai* egiten segur aski. Modalitate honetan ukondoak erabili daitezke, eta aurkariaren hanka eutsi berau lurrera botatzeko.

Dorleta Vidal





**LEIRE MAYORA**  
**PODOLOGOA**

Erdikokale 1, 1. A  
48260 Ermua  
☎ 943 17 47 44



**Quetzal**  
[arropa, bitxiak, opariak...]

Zubiaturre, 2 - 48260 ERMUA | 943170065  
www.quetzalmoda.com



**ZUZENBIDE  
KONTUAK**

**ZUZENBIDE  
KONTUAK**

Lege eta  
kontu aholkularitza

Izarra Centre eraikina

Tel: 846080080

Mugikorra: 688885435

zuzenbidekontuak@gmail.com



Zuri egokitzen  
den odontologia

La odontología  
que se adapta a ti

Dra. OLATZ GARCÍA ARREGUI Col. nº 1264

- P.A.D.I
- IMO
- SANITAS
- DENTYRED
- AZKARAN
- OCASO

☎ 943 17 04 04

✉ info@clnicasanpelayo.com

📍 San Pelayo Zeharkalea 5  
48260 Ermua (Bizkaia)



**AMATXI**  
BAR-CAFE

Menuak. ospakizunak...

Erdikokale 11 · Tel. 846 666 533

# Hipertentsioa

**K**ontsultara etortzen den emakume heldu batek galdetu zidan ea zerbaiten zain nengoen. Ez nion ulertu. Irri batez bota zidan gaztea nintzela halako presaz bizitzeko, mahai gaineko egutegia seinalatu zuen.

Inozentzia hutsez hartu nuen ohitura hori aspaldi. Goizero ezabatzen dut bezperako eguna egutegietan; hozkailukoan, ikasma haikoan eta lanekoan. Hau pasa da eta hau dator. Lau hilabete eta kito, hamar egun barru zera, oporrrak bi aste eta bat, bi, hiru egun. Pasatako egun guztiez kontzienteago egiten naizela erantzun nion, "eta ona al da hori?".

Orduan ohartu nintzen egunerokoa atzera-kontaketa baten eran bizitzeko hautua egina nuela marra txiki horiekin, ia oharkabeen. Burua huskerietan eta bizimodua

are eskematikoago bihurtuta; ezeri iskin egiteko aukerarik eman gabe; gauzen ordena aldatzeko aldarerik gabe; geroak iragan itxura noiz hartuko zain.

Bera arduratuta omen dago bizitzari ematen diogun balioarekin. Zertarako nahi dudana pasatako egunez kontzienteago egin, gertatutako guztia gogoratu beharrik ez badago, eta, gainera, zain egotea alperrik bada aukerak aprobetxatu ezean? Urte gehiegi omen ditu berak iraganeira begira egoteko, eta honezkero, gauza ziur gutxi bizitzan. Eta guk, gerraondorik egin gabekook, etengabeko zorionean sinistuta hezi garenok beti haren bila ibiltzeko, zer ote dakigun ba denboraren benetako neurriaz, egunak zenbatzeaz eta berriro hasteaz. Ze, atzera kontaketak egitea demasa iruditzen zaigu; datorrena-



*Garazi Mugarza*

ren antsiz, heldu denari joaten utzi eta berriro kontatzea.

Mundua gero eta hobea dela dioen kontu inozo hori ahaztu beharra daukagula ere esan zidan, aroz-aro, zabor bera baitabilela bueltaka. Bizitzak ez duela abisurik ematen eta noiz konturatuko ote garen ezin dela jubilatzeke zain egon. Kasualitatez sortu ginela mundura, eta berdin dela egun bera birritan bizita ere, gauza ederra dela hori. Eta hori bakarrik esan nahi didala: hori bakarrik, eta hori guztia.

Igaro ziren ezarritako hamar minuutak, dena ondo, nobedaderik ez. Egun hartan berak hitz egin zidan nire hipertentsioaz. Zenbat dakidan ezertarako balio ez duten gauzei buruz.

“ Konturatu nintzen egunerokoa atzera-kontaketa baten eran bizitzeko hautua egina nuela... ”

ETXETRESNA ELEKTRIKOEN  
SALMENTA ETA KONPONKETA

Diputazioa 7 (Ermua) · 943 17 66 08



IZASKUN TXURRUKA



Goienkale 9 Bajo  
48260 Ermua Bizkaia

94 317 66 90

peluqueriaizaskun@gmail.com  
peluqueriaizaskun.wordpress.com

**Proba-Leku**  
Heapaindegia - Estetika



Probaleku 3, 1A

Tel. 943 17 05 42

**DROGETEN** ITURRI

Ermua eta Mallabiko herri-aldizkaria

Aldizkaria doan  
jaso nahi duzu?

943 179350

688 632876

drogeten@gmail.com



**NEREA IÑIGUEZ  
HORTZ KLINIKA**



San Inazio 4 - Ermua

943 030 512 / niklinika@gmail.com



Goienkale kalea (Ermua)  
Tel: 943 172 454

sehiga.proteccionlaboral@gmail.com

**SALGAI**

42 metro karratuko mobil-homea salgai. Bañareseko kanpinean dago (Errioxa, Santo Domingo de la Calzadatik 2,5kmra). Teilatu bikoitza. Hiru logela, egongela, sukaldea eta komuna, dutxa eta bidearekin. Aire egokitua. 30 metro karratuko portxea toldoarekin. Prezio negoziagarria. © 943031477 (gauean, 20:00etatik 22:00etara).

**LAN BILA**

Ile-apaintzailea behar da Elgoibarko ile-apaindegi baterako. Asteburuetarako. © 943 24 62 25.

Zazpi urtetako esperientzia eta Eusko Jaurlaritzako titulazioak dituen emakumea eskaintzen da nagusiak zaindu edo garbiketak egiteko. Orduka, gauez zein egunez. © 603 514 085.

Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko, edo garbiketa lanak egiteko. Astelehenetik ostiralera. Orduka. © 681 310 989.



Otsailaren 3an  
Zorionak zure lehenengo urtebetetzean. Muxu handi bat familia guztiaren partez. Asko maite zaitugu.



Urtarrilaren 25ean  
Zorionak Aitor! 6 urte! Etxekoen partez sakukada bat musu!



Otsailaren 8an  
Zorionak Luken!!! Musu handi bat zure 11. urtebetetzean familia guztiaren partez.



Otsailaren 19an  
Zorionak Oihan! Zure 1. kandela pasteltxoan ipintzeko eguna heldu da. Jarraitu horren maitagarria izaten! Patxo eta besarkada erraldoia bat, Nahiaren partez bereziki! AMZ



Otsailaren 5ean eta 14an  
Zorionak Luka eta Claudia. Izugarri maite zaituztegu. Aita eta ama.

Iragarkia edo zorion-agurra kaleratzeko, bidali mezua: [drogeten@gmail.com](mailto:drogeten@gmail.com) helbidera.

Azken eguna:  
**Otsailaren 19a.**

**Otsailaren 26tik aurrera kobratuko dira Euskal Biruseko bazkide kuotak**

Euskal Birusa Euskara Elkarteak otsaila bukaeran kobratuko die bazkideei urteko kuota. Horregatik, helbide edo bankua aldatu dutenek, lehenbailehen jakinarazi beharko diote elkarteari (943 17 93 50 edo euskalbirusa@gmail.com). Herrian euskararen erabilera sustatzea nahi dutenek, elkarteke bazkide egin daitezke (35€ urtean, 20€ jubilatuta eta ikasleek).



**Enter**  
INFORMÁTICA

SALMENTAK  
IRAKASKUNTZA  
ZERBITZU TEKNIKOA

VI. Mendeurrena 19, behea  
943 17 90 37  
[enter@informaticaenter.com](mailto:enter@informaticaenter.com)

arral97.com  
**arral**

Telf.: 943 17 60 75  
banatzaile ofiziala

- Luis Cañas familia	- Pazo Señorans	- Txakoli Akarregi
- Añada Real	- Vicente Gandía	- Milana
- Yllera taldea	- Oriol Rossell	- La Loca Juana
- Gomez Cruzado	- Astobiza txakolina	- nitida

[arral@arral97.com](mailto:arral@arral97.com) - Pol. Ind. Gaitondo Goikoa Parcela Pab. 1 - Mallabia

Hamburguesería  
**TITANIC**

*Pintxo dastaketa poteoan*

Kantabria 2 • Tlf: 17 67 83

**FOTOKOPIAK**  
**KOLOREZKO FOTOKOPIAK**  
**HANDIPENAK - TXIKIPENAK**  
**PLANOAK - AZALEZTAPENAK**  
**FAX PUBLIKOAK**  
**INPRIMAKETAK KAMISETATAN**

Komentukua, 6 behea 48260 ERMUA TEL. / FAX 943 17 42 89

**ARRIETA CORDEVI**

Etxetresna elektrikoak,  
telebistak,  
musika-ekipoak...

...prezio eta kalitate ezin hobean.

VI. Centenario kalea, 5 - ERMUA

**MALLABIA  
1981**

Eskolako jolastokiko eskaileretan jarrita, goi-goitik hasita eta ezkerretik eskumara Aitor Castañeda, Penélope Gey, Ines Garitagoitia, Igor Aja, Ana Erdoiza, German Landa, Aitor Aldape, Kontxita Fernández, Jabi Garitaonandia, Idoia Gisasola, Nagore Aranburu, Asier Azagirre, Emilio Pinilla, Serafin Barranco, Ainhoa Barrainkua, Iban Ugartetxea, Oscar Justel, Suso Rodríguez, Luis Moreno eta baloiarekin Iban González.

**ERMUA  
1967**

Plazatik Goienkale bitarteko aldapa. Ezkerrean, izena ederto jarrita, Aldapakua baserria, hilabete honetan bota berri dena. Frontoiko horma nagusiaren osteari itsatsita, idatzizko bere lehen aipamena 1824koa da. Eskuman goitik behera erreskan, Infreñu, idatzizkoetan Plazagoiena baserria, 1968an botatakoa; hurrengo Ariñenekua, idatzizkoetan Undakua, 1996an bota eta atzera berreraikitakoa; ondoan Zapatarikua, gero Arribakua, Kalekua eta etxe zaharretan azkenengo Portalenekua, 2015eko abuztuan bota eta berreraikia. Argazkia Marcelino Onandiak atera zuen.

**KARABIXA**

**KARABIXA KAFETEGIA**  
Egunero 8:30etik aurrera zabalik


Eskuz egindako  
terapietan adituak

**ARTROS**  
FISIOTERAPIA MANUAL

Probaleku 5 · 48260 · Ermua  
617 680 156  
[www.fisioterapiamanualartros.com](http://www.fisioterapiamanualartros.com)

**LONDON**  
-taberna-

**2019ko abenduan, eta egun gutxiko aldearekin, Mallabiko bi taberna itxi zituzten: Trabaku Goikoa eta Bastida. Uste duzu horrek eragina izango duela herrian?**



■ Bai: 125 boto.  
■ Ez: 8 boto.

Urtarrilaren 16tik 23ra arte egon da inkesta honetan parte hartzeko aukera, eta guztira 133 boto jaso dira Euskal Biruseko Facebooken.

**Igone Amesti Bustinzuriaga** Bai. Egunerokotasunaz gain, jai eta egun/ospakizun berezietan nabarrituko dugu...

Bastida tabernaren kasuan, Udalak esku hartu beharko lukeela uste dut: eraikina erosi eta taberna alokagai jarritz adibidez.

Herriko plaza giro gabe geratu zaigu. Hutsik. Isilik. Tristea da...

**Andere Astigarraga Ibargutxi** Ai Igone, pentsamendu irakurri doztezu. Enee! Errezau ein biot hori holan ixeteko. Barruko parteko etxeko hormak bota, eta antzoki eder polit bat ein ahalko

zan. Eneeee! Ederra! Goixen eskulanetarako gelak, gaztientzako gune bat, eztaikit ... hainbat gauza, beharrianen arabera

**Olatz Areitioaurtena** Nere ustez, galdera mots gelditu da. komertzio txikia ia guztiz galdu da, ondorioz beharrezkoak diren zerbitzuak galdu ditugu.

**Iratxe Uribelarrea Solozabal** Bai. Ni be zurekin ados!



**URRETA** burdindenda

- \* Etxea
- \* Giltzak
- \* Tresneria
- \* Sarrailagintza
- \* Brikolajea
- \* Kit altzariak
- \* Ervailak

Zeharkalea 8 Tel: 943 17 65 61 ERMUA

**KRABI**  
Ileapaindegia  
Estetika

Tel: 943 03 17 56 Diputazio, 5 ERMUA

**ZINEA**

**Hilaren 1etik 3ra**  
**Hilaren 8tik 10era**  
**Hilaren 15etik 17ra**  
**Hilaren 22tik 24ra**  
**Hilaren 29tik 2ra**  
 Zehaztu gabeko filmpeak.  
 Ermua Antzokian.

**ZINE-KLUBA**

**Hilak 6**  
**Hilak 13**  
**Hilak 20**  
**Hilak 27**  
 Zehaztu gabe. Ermua  
 Antzokian. 20:30ean.

**UMEENTZAKO ZINEA**

**Hilak 2**  
**Hilak 9**  
**Hilak 16**  
**Hilak 23**  
 Zehaztu gabe. Ermua  
 Antzokian. 20:30ean.

**UMEENTZAKO EKITALDIK**

**Hilak 29:**  
 Haurrentzako ikuskizuna:  
 "Hansel eta Gretel",  
 Borobil Teatroa.  
 17:00etan. Ermua  
 Antzokian. Sarrera: 4€

**MUSIKA**

**Hilak 4:**  
 Agata Deunaren kalejira.  
 18:00etatik aurrera.

**Hilak 15:**  
 Blues kontzertua: The  
 Allnighters. 20:00etan.  
 Lobiano Kultur Gunean.  
 Sarrera: 10€

**Hilak 28:**  
 Kontzertua: La Bien  
 Querida. 22:15ean.  
 Ermua Antzokian.  
 Sarrera: 10€

**ANTZERKIA**

**Hilak 7:**  
 "El coronel no tiene  
 quien le escriba",  
 Imanol Arias,  
 Cristina de Inza,  
 Jorge Basanta,  
 Fran Calvo  
 eta Marta Molinarekin.  
 22:15ean.  
 Ermua Antzokian.  
 Sarrera: 15€

**Hilak 14:**  
 "Rita, arrastoan sartzen",  
 Aitziber Garmendia eta  
 Joseba Apaolazarekin.  
 22:15ean.  
 Ermua Antzokian.  
 Sarrera: 8€

**ERAKUSKETAK**

**Hilaren 3tik 16ra:**  
 Margoa: Udal margo  
 eskolako ikasleen lanak.  
 Lanegunetan 18:00etatik  
 20:00etara. Asteburuan  
 12:00etatik 14:00etara.

**Hilaren 17tik 1ra:**  
 Argazkiak: "Ermua  
 Antzokia 2019". Oscar  
 Blanco. 18:00etatik  
 20:00etara.

**INAUTERIAK**

**Hilak 20, osteguna.**  
**Eguen zuri**  
 15:30ean: Oilarren  
 jokoa.  
 17:00etan: Diskofesta:  
 Xaibor DJa.

**Hilak 21, ostirala.**  
**Hartza eguna**  
 18:30ean: Kalejira  
 Santixapeko iturritik  
 hasita.

**Hilak 22, larunbata**  
 12:30ean: Kuadrillen  
 arteko mozorro lehiaketa-  
 ren partaideen kalejira.  
 13:00etan: Kalejira:  
 Irulitxa txaranga.  
 17:30ean: Umeentzako  
 txokolatada.  
 18:00etan:  
 Haurrentzako erromeria:  
 Begira taldea.

19:00etan: Kalejira:  
 Irulitxa txaranga.  
 19:30ean:  
 Haurrentzako mozorro  
 lehiaketa.  
 23:00etan: Inauteriak  
 Los 40ekin.


**Otsailak 25, asteartea**  
 16:00etan:  
 Haurrentzako diskoteka.  
 18:00etan: Kale  
 ikuskizuna: "La selva".  
 Scura Produksioak.  
 19:00etan: Erromeria:  
 Agirren taldea.  
 23:00etan: DJ Festa  
 Oihan Vegarekin.  
 Ekitaldi guztiak Orbe  
 Kardinalaren plazan  
 (Eguraldi txarra egonez  
 gero, Aritzemendi  
 pilotalekuan).  
 Babeslea: Ermuko Udala  
 Partaideak: Ongarai  
 Eskola, Eskolabarri,  
 Sallabente ikastetxea,  
 San Pelayo ikastetxea,  
 Anaitasuna Ikastola,  
 Deba-Beheko Bertso  
 Eskola, Euskal Birusa,  
 Txindurri taldea,  
 Kaltxango AEK  
 Euskaltegia, Udal  
 Euskaltegia, Alboka  
 Musika Eskola eta  
 Antxitxiketan taldea.

Patxi López



**TXINDURRI**  
**TALDEA**  
**Tokian**  
**tokiko**

**PRO**  
 arraindegia



**ITSASKIAK**  
**ARRAIN FRESKOAK**  
**ETA IZOZTUAK**

Zubiaurre, 21  
 943 17 16 96  
 ERMUA

**Infreñu**  
**Taberna**

Kardenal Orbe plaza  
 943 174584  
[www.infretaberna.com](http://www.infretaberna.com)



**MUSIKA**  
**ESKOLA**

- Akordeoia	- Klarinetea
- Biolina	- Panderoa
- Biolontxelo	- Perkusioa
- Bonbardino	- Pianoa
- Flauta	- Saxofoia
- Kantua	- Trikitrixa
- Gitarra	- Tronboia
- Gitarra elektrikoa	- Tronpeta
- Gitarra baxua	- Txistua
- Lengoaia musikala	

Tel. 943 17 12 98 / 943 17 18 00 • [albokamusikaeskola@hotmail.com](mailto:albokamusikaeskola@hotmail.com)



**ETOR ZAITEZ GURE ESKOLA EZAGUTZERA!**  
**D eredua**

**MATRIKULAZIOA**

**URTARRILAREN 27tik**  
**OTSAILAREN 7ra**

**KONTAKTUA**

**943 17 90 36**  
**matrikula@eskolabarri.com**

EUSKARAN eta gure herriko ohituretan oinarritutako hezkuntza proiektua  
Eskola Iraunkorraren Ziurtagiria (IRAES) / IKT Heldutasuna / Jantokia 2 urteko gelatik aurrera  
Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailak izendatutako Proiektu Berriztatzaileak  
Laguntza Gela / Psikopedagogia Orientazio Saila  
Eskolaz Kanpoko Ekintzak/Eskolamendi /Ingelesa 3 urtetik aurrera



Mendi irteerak, kainoak, materialaren alokairua,  
argazkiak, bideoak, informazioa, mapak, liburua,  
federatzeko tramiteak, ikastaroak, hitzaldiak ...  
eta jende ona benetan!

<http://www.artarrai.com>

<http://artarrai.blogspot.com/>

[artarrai@euskalnet.net](mailto:artarrai@euskalnet.net)

ostegunero,

19:30etik 20:30era

liburutegiaren gainean

